

BECA DE INVESTIGACION

La aportación de las mujeres a la historia de Getxo

El Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo, convoca una Beca de Investigación con el objeto de sacar a la luz datos nuevos, o profundizar en los ya conocidos, sobre el papel desempeñado por las mujeres de Getxo.

Durante siglos, las mujeres han sido marginadas de la historia oficial, las diferentes aportaciones que han realizado, tanto en el espacio público como en el privado, han sido consideradas irrelevantes y por tanto silenciadas.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Getxo quiere recuperar y dar a conocer la historia de las mujeres getxotarras y su contribución a la vida cultural, social, económica y/o política.

1.- El tema de estudio sobre el que versará el trabajo será cualquier investigación que aporte datos acerca del papel de las mujeres en la historia pasada de Getxo.

Podrán ser objeto de investigación la aportación a la historia de una mujer de forma individual, la de algún grupo de mujeres concreto o la de las mujeres de Getxo como colectivo.

En cualquier caso, que el papel o aportación realizado a la historia de Getxo y/o a su entorno más inmediato, pueda ilustrar la realidad cultural, social, económica o política de este municipio.

2.- Se puede optar a la beca individualmente o en grupo y desde un enfoque histórico, educativo, laboral, económico... o bien multidisciplinar.

IKERKETA BEKA

Emakumeen ekarpena Getxoko historian

Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak ikerketa beka bat deitu du, Getxoko emakumeek bete duten paperaz datu berriak argitaratzeko edo datu jakinetan sakontzeko.

Mendeetan, emakumeak baztertuak izan dira historia ofizialean. Egin dituzten ekarpenak, bai eremu publikoan bai pribatuan, garrantzirik gabekotzat jo izan dira, eta beraz, isilarazi egin dira.

Horregatik guztiagatik, Getxoko emakumeen historia, eta bizitza kultural, sozial, ekonomiko edota politikoan egin duten ekarpena berreskuratzea eta ezagutzera ematea nahi du Getxoko Udalak.

1.- Lanak aztertuko duen gaia emakumeek Getxoren historian izan duten paperari buruzko datuak eskaintzen dituen edozein ikerketa izango da.

Emakume batek modu indibidualean, emakume talde batek edo Getxoko emakumeek kolektibo gisa historian eginiko ekarpena izango da ikerketa honen helburua.

Edonola ere, Getxoren edota inguruaren historiari eginiko ekarpenak edo betetako paperak udalerrri honen errealitate kultural, sozial, ekonomiko edo politikoa erakutsi behar du.

2.- Beka norbanakoak edo taldeak eska dezakete. Ikuspegia historikoa, hezkuntzako, lanekoa, ekonomikoa... izan daiteke; diziplina ugari bateratu ditzake halaber.

3.- Para poder optar a la beca, las personas participantes deben presentar un proyecto de trabajo no superior a los 10 folios, antes del 15 de noviembre de 2008 en el Registro General del Ayuntamiento de Getxo, haciendo constar: BECA DE INVESTIGACIÓN "LA APORTACIÓN DE LAS MUJERES A LA HISTORIA DE GETXO".

4.- El proyecto recogerá el título, contenidos, justificación del tema seleccionado, objetivos, metodología, fuentes de obtención de información y resultados previstos.

5.- Los proyectos estarán firmados con un lema y acompañados por un sobre cerrado, con el mismo lema, donde conste el nombre y apellidos de la persona o personas que presentan el proyecto, la dirección y un número de teléfono de contacto.

6.- Los proyectos y el trabajo podrán ser presentados en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, mecanografiados a doble espacio por una sola cara.

7.- El jurado que seleccione el proyecto estará formado por: la Concejala de Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo, la Técnica de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo, dos especialistas en Historia y una representante de las Asociaciones de Mujeres.

8.- Sin perjuicio de que el jurado pueda añadir otros, se establecen los siguientes criterios de valoración: interés, viabilidad, claridad en la exposición de la metodología y el objeto de investigación, conocimiento del tema.

3.- Beka eskatu ahal izateko, parte hartzaileek lan proiektu bat aurkeztu behar dute, gehienez 10 foliotakoa, 2008ko azaroaren 15a baino lehenago, Getxoko Udaleko Erregistro Nagusian. Hau jarri behar da: "EMAKUMEEN EKARPENA GETXOREN HISTORIAN" IKERKETA BEKA.

4.- Proiektuan izenburua, edukiak, aukeratutako gaiaren justifikazioa, helburuak, metodologia, informazioa eskuratzeko iturriak eta aurreikusitako emaitzak bilduko dira.

5.- Proiektuak lelo batekin sinatuko dira eta gutunazal itxi bat erantsiko zaie, lelo berarekin. Gutunazalaren barruan, proiektua aurkeztu duen pertsonaren (edo pertsonen) izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia adierazi behar dira.

6.- Proiektuak eta lana Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan aurkez daitezke. Makinatuta egon behar dira, espazioa bikoitzean, alde bakarrean idatzita.

7.- Proiektua aukeratzeko duen epaimahaia ondoko hauek osatuko dute: Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak, Getxoko Udaleko Berdintasun teknikariak, Historiako bi espezialistek eta Emakume Elkarteetako ordezkari batek.

8.- Hauek izango dira balorazio irizpideak: interesa, bideragarritasuna, ikerketaren xedea eta metodologia azaltzean argitasuna, gaiaren ezagupena. Epaimahaiak irizpide gehiago erantsi ditzake.

9.- La dotación económica de la Bolsa será de 7.000 euros. La forma de pago de esta cantidad será en dos partes: el 75% una vez seleccionado el proyecto y el 25% restante a la entrega del informe final.

10.- El proyecto seleccionado se deberá desarrollar en los meses siguientes al concurso, debiendo presentarse el informe final de la investigación, en cualquier caso, antes del 15 de diciembre de 2009.

11.- El Ayuntamiento de Getxo establecerá unas horas de tutoría obligatorias para el seguimiento de la investigación. Para ello, se contará con la colaboración de una persona experta.

12.- Los trabajos deberán ser inéditos. El Ayuntamiento de Getxo se reserva el derecho de publicar – en parte o en su totalidad – el trabajo premiado o de declarar desierta la beca en el caso de que los proyectos presentados no sean valorados positivamente.

13.- Los proyectos no becados podrán ser retirados personalmente por el autor/a o por persona autorizada durante el mes siguiente a la resolución de la beca, en las oficinas del Servicio de Igualdad, sitas en la calle Martikoena 16.

14.- La presentación a esta beca presupone la aceptación en su totalidad de las presentes Bases.

15.- Cualquier situación no prevista en las mismas será resuelta por el Jurado.

9.- Poltsaren dotazio ekonomikoa 7.000 euro izango da. Diru hori bi epetan ordainduko da: proiektua aukeratzen denean, %75, eta gainerakoa, %25, behin betiko txostena ematean.

10.- Aukeratutako proiektua lehiaketaren ondoko hiletan egin behar da. Ikerketaren behin betiko txostena 2009ko abenduaren 15a baino lehenago aurkeztu behar da halere.

11.- Getxoko Udalak nahitaezko tutoretza ordu batzuk ezarriko ditu, ikerketaren jarraipena egiteko. Horretarako, aditu baten laguntza jasoko da.

12.- Lanak aurretik argitaratu gabe egon behar dira. Getxoko Udalak saritutako lana osorik edo zati batez argitara dezake, edo beka hutsik utz dezake, baldin eta aurkeztutako proiektuak ez badira positiboki baloratzen.

13.- Beka jasotzen ez duten proiektuak egileak edo berak baimendutako pertsona batek eskura ditzakete beka ebatzi ondoko hilabetean. Horretarako, Berdintasun Zerbitzuko bulegora joan behar da, Martikoena kaleko 16.ean.

14.- Beka honetara aurkeztuz, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira.

15.- Oinarrietan aurreikusten ez diren egoeretan, epaimahaiak erabakiko du.